

IKASLEEN TXOKOA 113. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 3-4



Azken agurra

Goiz arrunt bat zen. Larunbat goiz arrunt bat. Goizeko 10:00ak ziren, eta lo jarraitzen nuen. Institutuan, azterketez beteta genbiltzan ebaluaketa amaile-ra zela eta. Etxean aita eta biok ginen, ni lo eta bera lanerako prestatzen. Lanera joan aurretik esnatu ninduen aitak, ikasi egin behar nuela esanez.

Ostiral gauean lagunekin atera nintzen eta egin nahi nuen gauza bakarra lo egitea zen. Orduan, aitarekin haserretu nintzen, bart gauean etxera berandu iritsi nintzela eta nekatuta

nengoela esan nion baina berak ikasketetan zentratu behar nuela erantzun zidan eta goizeko 10:30ak izanik ikasten hasteko ordua zela. Hori entzundakoan, gelako atea indarrez itxi nuen, eta egin nezakeen gauzik okerrrena izan zen. Aita sutan jarri baitzen baina, nire onerako, lanera garaiz iritsi behar zuen eta ez zuen nirekin eztabaidatzen hasteko astirik izan..

Goiza, beraz, lasai pasa nuen, telebistan telesai bat ikusi, lagunekin txateatu... egin ez nuen gauza bakarra aitak esandako izan zen, ikastea. Goizak aurrera egin ahala, iritsi zen halako batean bazkalordua. Bakarrik bazkaldu nuen, gurasoak lanean eta anaia amonaren etxean zegoelako.

Arratsaldea goizaren antzera pasa nuen, kuaderno eta libururik ireki gabe. Arratsaldeko 19:00ak iritsi ziren baina aita ez zen ageri. Normalean, 19:00ak baino lehenago iristen zen. Hala ere, ez nion inportantziarik eman. 20:00ak puntuan eta eta ama eta anaia iritsi berriak. Amak aitaren berri galdetu zidan, zirudienez berak ere ez zekien ezer. Orduan amak mugikorra hartu eta aitari deitu zion, baina erantzunik ez. Ez ginen asko kezkatu, beharbada larunbata izanik lagunekin geratu zelako. Gu afaltzen hasi ginen aitari itxaron gabe. Bat-batean, amak dei bat jaso zuen. Sukaldetik atera zen erantzuteko, zenbaki ezezagun bat zenez, inportantea izan zitekeen.

Dei Galdu Bat - Ohar Kritikoa

Itsasoari esker sortutako harreman baten konkaeta izango ote? Itsaso hamasei urteko nerabe bat da, bere amarekin Andaluziako kostaldera bidaia bat egin duena. Bestea ordea, Aminata, bere etxetik diru bila, Dakar hirira joan den neska gazte bat. Hondartzan Itsasok botila baten barnean topatutako mugikorreko audioei esker jakingo dute elkarren berri.

Azkar irakurtzen den liburua da Dei galdu bat, ehun eta hirurogei orrialde dituen liburua da honako hau; kapituluak motzak dira baita errazak ira-

kurtzeko ere. Baina honek ez du gai sakonetaz hitz egiteko aukera kentzen. Izan ere, liburuaren izenburuak dioen bezela: “dei galdu bat” Aminatak, liburuko protagonistak, momentu gogor batean grabatuta gelditutako audioei buruz doa liburua.

Bestalde, irakurtzerako garaian entretenigarria egin zait aipatu dituen gai sakonengatik, bortxaketa, traizioa... Gainera, haserrea, adiskidetasuna, tristura, mina... dira idazleak gehien isladatutako sentimenduak. Biek adierazten dituzte beraien sentimenduak, bakoitzak bere

modura, alegia, ez da zaila protagonistek zer sentitzen duten edo zer pentsatzen duten jakitea. Narratzailea lehen pertsonan idatzia egoteak, irakurlearengana gehiago gerturatzen duela dirudi. Horretaz gain, liburuaren hasiera errepikakorra egin zaidan arren, kapituluek aurrera egin ala intersgarriagoa iruditu zait, baita intriga gehitu ere.

Azkar irakurtzen diren liburuak gustuko dituenarentzat egokia da, baina esan beharra dago Dei galdu bat ez dela azkar irakurtzea gustatzen zaien guztientzat. Batzuentzat liburu gogorra izan daiteke, beste batzuentzat ordea aspergarria; hala ere, ziur nago euskal irakurzaileei interesgarria egingo zaiela.

Egilea: Garazi Alberdi

Itzalpeko konfiantza

Hilabete bat pasa da dagoeneko, baina oraindik argi dut momentu hura. Gaueko hamaikak inguru izango ziren, eta kalea hutsik zegoen.Etxera nindoan, eguna luzea izan zen, eta nekearen eraginez nire pausuak moteldu egiten ziren.Bat-batean oihu ahul bat entzun nuen.

—Mesedez, lagundu! —entzun zen kale kantoi ilun batean.

Geldirik gelditu nintzen, bihotza taupadaka, nire buruari galdetuz: zein ote izango da ordu hauetan? Nire alboetara begiratu eta farolak besterik ez nituen ikusten, hego haizeak nire aurpegia jotzen ari zela. Baina ixkin batean emakume bat ikusi nuen.

—Ondo al zaude? — galdetu nion beldur pixka batekin.

—Ez... erori egin naiz eta

min hartu dut hankan, mugikorrik gabe nago —esan zidan bere ahotsean kraskatuan, minez zegoen senale.

Ingurua aztertzen hasi nintzen. Inguruan ez zegoen beste inor, eta benetan zauritua zirudien. Zer egin nezakeen?

—Ospitalera joan behar duzu, lagunduko dizut —esan nion laguntzeko prest.

—Ez lasai, etxetik gertu bizi naiz, lagunduko zenidake bertaraino, ezta? —hark erantzun.

Buruarekin baiezkoa egin eta aurrera egin genuen. Bidean, hitz egiten hasi ginen, eta jakin nuen Ane izena zuela eta ingeniaria zela, pertsona alaia zirudien, baina bere portaeran bazen zerbait bitxia.

Azkenean, bere etxera iritsi ginen, momentu batez gelditu eta egoera arraro baten aurrean

nengoela pentsatu nuen, gainera, ondo ibili zitekeela ikusi nuen. Harrituta, agurtu, eta nire etxera itzuli nintzen. Baina bat-batean, norbait korrika entzun nuen nire atzetik eta hitz hauek esan zizkidan:

—Sentitzen dut baina ez dut beste irtenbiderik!

Ane zegoen nire aurrean, nire poltsikoak arakatzen, nire diru zorroa eskuan zuela.Hori izan zen ikusi nuen azkena.

Ospitalera eraman behar izan ninduten, eta egun hartatik ez naiz pertsona bera izan, ilunpetako kale bazterrei beste begirada batekin begiratzen hasi nintzelako.

Egilea: Manex Gartzia

Anaia eta biok afaltzen jarraitu genuen zetorkigunari batere susmorik hartu gabe.

Halako batean ama sukaldean sartu zen. Ezer esan gabe bere aulkian eseri eta puntu zehatz bati begira jarri zen. 15 minutu pasa genituen isiltasunean, egia esan oso arraroa iruditzen zitzaidan gertatzen ari zena Afalorduan eznuen hitz egiteko gogrik izaten, baina amak beti zuen galdetzeko zerbait. Denbora baten ondoren, amaren hitzak hauek izan ziren: “aitak etxerako bidean istripu bat izan du eta orain ospitalean dago koma egoeran”

Hamar segundu pasa nituen amak esan zuena asimilatzen eta gelara sartu bezain azkar atea itxi nuen, oraingoan soinu-

rik atera gabe. Ez nuen inorekin hitz egin nahi, bakarrik egon nahi nuen, ohean etzanda.

Hurrengo astea nire bizitzako txarrena izan zen, etxean pasa nuen, ohetik mugitu gabe. Ama saiatu zen ahal zuena egiten baina ez zegoen modurik. Nire barruan mina zen nagusi. Aitarekin egon nintzen azken oroitzapena haserre egotearena zen. Nire egoskorkeriagatik haserretu ginen, eta ez zegoen min gehiago egiten zidan gauzarik, horrela modu horretan agurtu izana baino.

Orain, lau urteren ondoren, aitaren ondoan nago, esnatuko den esperantzarekin

Egilea: Enara Iraola

Motxileroak

Ni motxileroa banintz eta denbora asko banu, Ozeania eta Asia hegoekialdeko herrialdeak bisitatuko nituzke. Bi kontinente hauek herrialde asko dituztenez, Australia, Zeland Berria, Tailandia, Indonesia eta Malaysia aukeratuko nituzke joateko, hauek ekonomikoki egokiak direlako eta betidanik ezagutu nahi izan ditudalako.

Lehenengo, Tailandia, Malaysia eta Indonesia bisitatuko nituzke .Eta azkenik, Australia eta Zeland Berria.

Tailandiara joango banintz, hiriburua, Bangkok, bisitatuko nuke. Izan ere, herrialde hau oso ezaguna da bere natura aberatsagatik; horregatik, bertan dauden mendiak, hondartzak, irlak eta animaliak, hala nola, elefanteak ezagutzea gustatuko litzaidake. Han, ostatueta geratuko nintzateke, nahiko merkeak dira eta.

Gero Malasiara joango banintz, berriro ere hiriburua bisitatuko nuke, Kuala Lumpur. Gustatuko litzaidake, kultura, natura eta gastronomia ezagutzea. Han ere, ostatueta geratuko nintzateke.

Eta Asiarekin bukatzeko, Indonesiara joango banintz, irlak bisitatuko nituzke; esaterako, Bali (bertako hondartzak, tenpluak, etb. ezagutzeko), Komodo (Komodoko dragoiak ezagutzeko eta urpean igeri egiteko), Sumatra (ohian tropikala eta orangutanak ezagutzeko), etb.-etara joatea gustatuko litzaidake. Ostatueta geratuko nintzateke Indonesian.

Ondoren Australia bisitatuko banu, Melbourne eta Sidney hiriak bisitatuko nituzke.

Bertan, Koral Hesi Handian urpean igeri egitea ere asko gus-

tatuko litzaidake. Horrez gain, Australiako desertuaren monolitoan, Ulurun, ere egon nahiko nuke. Hillier lakua ikusgarria da bere kolore arrosarengatik, eta hori ikusi nahiko nuke.

Australia betidanik bisitatu nahi izan dut, eta horregatik denbora gehiago han igaro nahi izango nuke. Bertako fauna eta flora ezagutu nahi izango nituzke.

Bukatzeko, Zeland Berrira joango banintz, Milford Sound (mendiak, ur-jauziak eta paisaiak ikusteko), Queenstown, Wellington, Bay of Islands, etb.-era joango nintzateke.

Bidaia tzen jarraitzeko herrialde batetik bestera, Tailandian, Malasian eta Indonesian banintz, lan tenporal bat aurkitzen saiatuko nintzateke. Izan ere, Australian eta Zeland Berrian aukera dago baserri modukoetan lan egiteko, eta horren truke janaria, ostatua eta dirua ematen dizute. Horregatik, bi herrialde hauetan, baserrietan lan egingo nuke.

Herrialde batetik bestera joateko, hegazkinean abiatuko nintzateke. Bestalde, herrialdean bertan garraio publikoan ibiliko nintzateke.

Bidai hau bakarrik egitea gustatuko litzaidake, horrela gauza desberdinei buruz gehiago ikasten duzula eta bakarrik egonda helduago bihur zaitezkeela pentsatzen dut eta.

Egilea: Maddi Moseguez

Txanpon magikoa

Ez nuen ezer espero gau hartan. Hotza zen, oso hotza. Haize asko egiten zuen, eta nik arropa zaharra besterik ez nuen bero mantentzeko. Beti bezala, parke zaharreko banku batean eseri nintzen.

Aspaldi, hemen Nora eta biok egoten ginen. Beti barre egiten zuen, eta bere barreak egun txarrena ere alaitzen zituen. Baina orain, bakarrik nengoen. Nora joan zen, eta harekin batera, nire bizitzaren zati bat ere galdu nuen.

Bat-batean, tilin bat entzun nuen. Lurrera begiratu nuen eta txanpon bat ikusi nuen. Biltzeko makurtu nintzen, eta eskuetan hartu nuenean, konturatu nintzen ez zela ohikoa. Distiratsu zegoen, zaharra zen baina zinkinkeriarik gabe, eta inskripzio bat zuen. Inskripzioak honako hau esaten zuen:

“Desio bat”

Barrezka hasi nintzen. Desio bat? Benetan?. Betidanik esaten zuten halako gauzak ipuinetan bakarrik gertatzen zirela. Baina... zer galdu nezakeen?

«Nora berriz ikusi nahi dut», esan nuen, ia ozenki. «Azken al-diz, behintzat».

Bat-batean, haizea indartu egin zen. Parkeko farolak darka hasi ziren, eta hostoak nire inguruan dantzatzen hasi ziren. Zerbaitek barrutik darka jarri ninduen. Begiak itxi nituen.

Arnasa sakon hartu, eta berriz ireki nituenean...

Han zegoen.

Nora.

Parkeko ate ondoan, soinean bere betiko beroki berdea zuela. Niri begira.

Eta irribarre egin zidan.

Orduan ulertu nuen: Txanponak desioak betetzen zituen... baina zerren truke?

Nora nire aurrean zegoen. Hainbeste denboraren ostean, berriro hemen. Begiak nigan jarriak zituen, eta irribarre egiten zidan, beti bezala.

Baina ezin nuen sinetsi. Hau ez zen normala.

—Martin...? —esan zuen, ahots leunez.

Bihotza azkar taupaka hasi zitzaidan. Hitz egin nahi nuen, baina ez nekien zer esan. Hau nola gertatu zen? Nola zegoen hemen?

Nire izena berriro esan zuen, apur bat kezkatuago. Bere ahotza entzuteak beldurra eta poza eman zidan aldi berean.

—Zu... benetakoa al zara? —galdetu nion azkenean.

Bekainak zimurtu zituen. Zer gertatzen ari zen? Ez al ze-

goen bera ere harrituta?

—Noski benetakoa naiz. Zergatik galdetzen didazu hori? —erantzun zuen.

Ez nekien zer esan. Hau guttia oso arraroa zen. Ez zen normala.

—Ez dakit... Nora, zu joan egin zinen. Eta orain, bat-batean, hemen zaude.

Neskak begiratu egin zidan, aurpegia serio jarrita.

—Nik ez dut alde egin, Martin. Zu zinen desagertu zinena.

Arnasa hartu nuen astiro. Ezinezkoa zen. Berak esandakoa ez zen egia. Nik hemen jarraitzen nuen. Beti hemen egon naiz.

Baina... zer gertatu zen benetan?

Nire poltsikoan zerbait arraroa sentitu nuen. Txanpona bero zegoen.

Bapatean, beldurra sentitu nuen. Zerbait ez zebilen ondo.

—Ez dut ulertzen... —xuxurlatu nuen.

Nora nire ondoan jarri zen eta bere eskuarekin nire besoa ukitu zuen. Bere ukitua beroa zen. Benetakoa zirudien.

—Martin, zer gertatu zaizu? Ondo ahal zaude?

Ez nekien zer esan. Buruaz baietz egin nuen, baina ez nekien egia zen ala ez. Agian zerbait ahazten ari nintzen. Agian... zerbait galdu nuen.

Begirada jaitsi nuen. Txan-

tzitsuak idazten dituzte, eta azken aldian bulegoetan ere parte hartzen ari dira. Horrela, langile ugari ari dira haien lanak galtzen, eta hori ez da bidezkoa.

Bestetik, adimen artifizialaren bidez gure informazio pertsonala jasotzen da. Webgunee-tan eta aplikazioetan datu asko ematen ditugu, eta adimen artifizialak datu horiek erabiltzen ditu, batzuetan gure baimenik gabe. Horrek pribatutasuna arriskuan jartzen du. Norbaitek gure datuak gaizki erabiltzen

pona eskuan nuen orain. Berriro irakurri nuen inskripzioa:

«Desio bat»

Baina... inork ez zuen esan doakoa zenik.

Beldurra sentitzen hasi nintzen. Hau ez zen normala. Txanpona sakeletik atera eta begiratu nuen.

“Desio bat” jartzen zuen oraindik, baina orain inskripzioa oso gutxi ikusten zen.

Nora nire aurrean zegoen, baina zerbait arraroa sentitu nuen berarengan.

—Martin, zer gertatzen zaizu? Gaizki sentitzen ahal zara?—galdetu zidan kezkatuta.

Bere eskuekin nere besoa ukitu zuen, baina hotza sentitu nuen. Oso hotza.

Ez zen normala.

Atzera urrundu nintzen.

—Zu ez zara Nora.

Begiak zabaldu zituen. Hase-rre zirudien.

—Zer ari zara esaten? Nik beti hemen egon naiz.

—Ez da egia. Zu desagertu egin zinen. Eta nik deseo bat eskatu...

Esaldia bukatu aurretik, pentsamendu guztiak jun egin zitzaizkidan.

Zerbait ahzten ari nintzen.

Baina zer?

Ez nuen ezer gogoratzen.

Nor nintzen?

Nora aurrean jarraitzen zuen, baina bere begiak iluna-

goak ziren.

—Zerbait gaizki egin duzu—esan zidan tonoz larriarekin.

Beldurra sentitu nuen. Atzera egin nuen, baina hankak darka nituen.

—Zu ordaintzen ari zara—esan zuen, niregana hurbilduz—. Txanponak ez dizu ematen nahi duzuna doan. Zerbait hartzen du desioaren trukez.

Eta orain jakin nuen zer hartu zuen desioaren trukez.

Nire bizitza hartu zuen.

Ez nintzen existitzen. Ez nuen familiarik, ez etxerik, ez lagunik. Ez nuen ezer.

Begiak ireki nituenean, Nora ez zegoen.

Ez zegoen ezer, ez bankurik, ez farolarik, ez zuhaitzik. Dena desagertu zen.

Bakarrik iluntasuna ikusi ahal nuen.

Hotza sentitu nuen, baina ez gorputzean, baizik eta barruan, bihotzean.

Oihukatu nahi nuen, baian haizerik ez nuen.

Saiatu nintzen mugitzen, baina nire hankek ez zuten erantzuten.

Beldurra irentsi nuen. Hau ez zen leku bat. Hau hutsa zen.

Ni huts bihurtu nintzen.

Han betirako gertauko nintzela ohartuz.

Egilea: Iker Zarallo

Benetan fidatzekoa da adimen artifiziala?

Azken urteetan, teknologia asko garatu da, eta horietako bat da adimen artifiziala, IA bezala ezagutua. Adimen artifiziala «pentsatzen» edo «ikasten» ikasten duten makina teknologikoak dira, erabakiak hartu eta azken urteetan pertsonen lana ordezkatzeko dutelarik. Askok esaten dute oso lagungarria dela, baina

nik uste dut adimen artifiziala arriskutsua izan daitekeela kasu batzuetan, eta ez gukeela gehiegitan erabili behar.

Hasteko, adimen artifizialak lanpostuak kendu ditzake. Gero eta lan gehiago egiten dituzte makinek: orain robotek hartzen dituzte lanpostu gehienak fabriketan, hauek testu garran-

Denda txikiak eta merkataritza-gune handiak

Gaur egungo denda txikiak egoera larrian daude, herrian, denda txiki asko itxi egin dira eta gero eta gutxiago geratzen dira. Gauza bat da behar bat asetzeko zerbait erostea, baina jende askok merkataritza-gune handietako gauzak horrenbesteko behar gabe erosten ditu denda txikietan erosi beharrean, adibidez: markako arropa, bidaia garestiak, luxuzko ordulariak, janaria...

Ni ez nago merkataritza-gune handietan erostearen alde, izan

ere ez zait onuragarria iruditzen.

Alde batetik, zure herriko denda txikietan erosketak egitea askoz ere erosoagoa dela esan behar dut, izan ere, ezagunekin hitz egiten duzu, herriko jendeari laguntzen diozu zure erosketekin, etxetik gertuago dago, ez duzu gasolina gastatu, ezta ingurumena kutsatu beharrik ere. Gainera, merkataritza-gune handietan jende asko pilatzen da, beraz, zarata handia egoten da eta ez da batere atsegina.

Bestetik, denda txikiek merkataritza-gune handiak baino energia gutxiago kontsumitzen dute, ez baitaude izozkailu erraldoiak, edo argi distiratsurik piztuta gauez eta egunez, edo aire girotu indartsu horien beharrik.

Horrez gain, merkataritza-gune handietako metro karratu bakoitzak, auzoko janari denden energia baino hiru aldiz gehiago kontsumitzen du.

Ikerketa batzuk diotenez, denda txikietan gastatzen den diruak hiru aldiz zirkulatzen du

baditu, arazo larriak izan ditzakegulako.

Gainera, adimen artifiziala ez da beti justua. Algoritmo batzuek erabaki diskriminatzaileak hartzen dituzte. Adibidez, lan baterako hautagai bat aukeratzeko, sistema batek emakumeak gutxiago aukertu ditzake, aurreko datuek hala erakusten badute. Adimen artifiziala neutroa ez dela erakusten du horrek, eta akatsak egin ditzakeela.

Egia da, adimen artifiziala

auzoan ekonomia orokorrean desagertu baino lehen.

Merkataritza-gune handietan, ordea, gastatzen den zatirik handienak eskualdea ia berehala uzten du.

Hori dela eta, badakit batzuetan zaila dela merkataritza-guneetako gauzak ez erostea, oso iragarki tentagarriak dau-de eta. Dena dela, ni ahalik eta erosketa gehien nire herriko denda txikietan egiten saiatzen naiz, nire ustez, onuragarria delako eta ez delako gomendagarria merkataritza-guneetako kontsumismoan erotzea.

Hori dela eta, Badakit batzuetan zaila dela merkataritza-guneetako gauzak ez erostea, oso

erabilgarria izan daiteke gauza batzuetarako: hizkuntza itzultzeko, informazioa bilatzeko edo medikuntzan laguntzeko. Baina hori ez da nahikoa. Arazo asko daude, eta ez badugu ondo kontrolatzen, kalte handia egin dezake.

Ondorioz, nik uste dut adimen artifiziala ez dela hain ona denek esaten duten bezala. Teknologia hau kontuz eta arauekin erabili behar da. Bestela, gizartearentzat arriskutsua bihurtu daiteke.

Egilea: Gerezi Juha 4D

iragarki tentagarriak egiten ditzutelako. Dena dela, nik ahalik eta erosketa gehien nire herriko denda txikietan egiten saiatzen naiz, nire ustez, onuragarria delako eta ez delako gomendagarria merkataritza-guneetako kontsumismoan erotzea.

Azkenik, guzti hau aipatu ondoren, garbi dago merkataritza-gune handiak herriko denda txikientzat kaltegarriak direla. Gainera, gure ingurumena kutsatzen dugu kotxeetako kearekin eta kontsumismoan erortzeko aukera asko daude.

Egilea: Xuban Uria Plaza 4A

Isiltasunak ere min egiten du: hezkuntza sistemaren hutsune baten aurrean

Santanderreko institutu bateko lau ikaslek garuneko paralisia duen ikaskide bat jo, iraindu eta umiliatu egin dute. Bertako zuzendari eta irakasleek, ordea, ez die garrantzirik eman eta bost egunez soilik kaleratu dituzte erasotzaileak, eta orain guztiak batera daude ikastetxean. Horren aurrean, ikaslearen gurasoak epaitegietara jo dute. Nire ustetan ere, amak jokabide ona eduki du epaitegietara joanez,

izan ere, institua ez da arazo horren kargu egin eta erasotzailleen alde jo dute. Lehenik eta behin, ikastetxeak ez du bere betebeharra bete; eskolak ez dira ikasgelak bakarrik, baizik eta elkarbizitzeko espazio seguruak ere. Zuzendaritzak eta irakasleek ikasleen ongizatea bermatu behar dute, baina kasu honetan erasotzaileek bost eguneko kaleratzea bakarrik jaso dute, eta ondoren

berriro ikasgelara itzuli dira, biktimarekin batera. Honek erakusten du ez dela benetako neurririk hartu, eta, gainera, biktima berriz ere arrisku egoera batean jarri dutela. Bigarrenik, nire ikuspegitik, erasotzailleen aurkako zigorrak ez dira proportzionatuak izan, eta gizarte gisa ezin dugu onartu jazarpena eta diskriminazioa zigorrik gabe geratzea. Garuneko paralisia duen ikasle bat jotzea

eta iraintzea ez da «txantxa» bat, pertsona baten aurkako eraso larri bat baizik. Zigorrak hezitzaileak izan behar dira, baina hauek argi eta garbi adierazi behar dute ere halako jokabideek ez dutela lekurik gure gizartean. Azkenik, ama epaitegieta- ra joatea ausardiazko eta eredu hartu daiteken ekintza bat iruizten zait, ez baita erraza seme-alabaren mina publiko

egitea, baina askotan horrelako ekintzek bakarrik mugitzen dituzte erakundeak. Guraso horrek borroka bat hasi du ez bakarrik bere semearentzat, baizik eta milaka ikaslerentzat, eta, horregatik, gizarte osoaren babesa eta aitortza merezi du. Ondorioz, ezinbestekoa da hezkuntza komunitateak, gizarteak eta erakundeek elkarrekin lan egitea horrelako egoerak ez errepikatzeko. Ezin dugu beste alde batera begiratu, batez ere ahulenak babestu behar direnean.

Egilea: Olaia Burguera

Lurraren defentsa

Otsailean Iruñean manifestazio jendetsu bat izan zen. Aroztégia makroproiektua geldiarazi zedin kanpaldia antolatu zuten zazpi gazteei babesa emateko. Gainera, gazte hauek ekimen honen ondorioz jaso duten espetze-zigor eta isun bidegabea salatzeke xedea zuen. Argi dago, egoera honen aurrean, zerbait egin beharra dagoela; ez baitu

inolako zentzurik 300 biztanleko herri txiki batean 200 luxuzko-etxebizitza, hotel bat eta golf zelai bat eraikitzeak. Hasteko, esango nuke, makroproiektu honi baiezkua emateko arrazoi nagusietako bat turistak erakartzea dela. Honek Nafarroako gobernuari mesede egiten baitio, gehienbat ekonomikoki. Azkeneko honentzat hau

erakargarria izanagatik, herriarentzat ez da horrela. Irabazien gehiengoa, guztia ez esatearren, bere esku geratzen da eta. Bigarrenik, horrelako garrantzia duen erabaki bat hartzerakoan, ez da herritarren iritzia haintzakotzat hartzen. Duela urte batzuk, Lekarozen bozkaketa bat egin zen haien ustea zein zen jakiteko. Gehiengoa Aroztégiaren aurka zegoela atera bazen ere, proiektuak aurrera jarraitu zuen. Bestalde,

istalakuntza guzti hauek erakitzeke lurra hasiera batean herri-lurrak ziren eta bertako baserritarrek erabiltzen zituzten. Gobernuak bere esku hartu zituen arte. Amaitzeko, talde «kriminal» izateaz akusatuta dauden zazpi gazteei babesa erakusteko eta Lekarozen gertatzen ari den egoera ezagutara eraman dadin, garrantzitsua iruditzen zait mobilizazio eta ekitaldiak antolatu eta baita hedabideeta-

ra zabaltzea ere. Geroz eta jende gehiagorengana zabaltzen bada, aurka egiteko indar gehiago bilduko baita. Laburbilduz, Nafar gobernuak egoera honekiko izan duen erantzunaren ondoren, garbi ikusten da herritarren iritzia gobernuaren mesede ekonomikoan azpitik geratzen dela.

Egilea: Irati Sasieta

Trumpen muga-zergak

Donald Trumpek hartu dituen erabakiek mundu guztia beldurtzen du. Estatu Batuetako presidenteak, Europa eta beste herrialde batzuen gain ezarritako muga-zergen ezarpen berriek nazioarteko tentsioa areagotu du. “Justizia arrazoiak” eta “elkarrekikotasuna” izan dira bere

justifikazio nagusiak, nahiz eta inork ez sinetsi. Izan ere, neurri hauek, elikadura, autogintza eta farmazia sektoreei eragiten die gehienbat, nazioarteko komertzioa oztopatuz. Nire ustez Trumpen muga-zergen politika arriskutsua da, nazioarteko merkataritzan

desoreka sortu eta ondorioz, ekonomia globala kaltetzen duelako. Gainera, potentzien arteko norgehiagoka pizten du, herrialdeen arteko gatazkak areagotuz. Hasteko, Trumpen neurriak merkataritza-gerra batean sakontzen dira, non herrialdeek elkarri zergak ezartzen dizkionten kalteak besterik ez eraginez. Honek nazioarteko harremanak eta merkataritza librearen baloreak ahultzen ditu. Bestalde, haserrealdi hauek geldituz gero,

handitzen joango dira, eta gerra batean amaitu genezake. Bestalde, muga-zergen igoerak produktuen prezioak handitzen ditu, kontsumitzaileei eta enpresei kalte eginez, hau da, inportazioak garestiagoak dira bertako produktuak baino, eta lehiakortasuna guztiz desagertzen da, industria asko kaltetuz. Gainera, ekoizpen-kostuak handitzeak inflazioa eta ekonomia globalaren atzeraldia ekar ditzake. Esandakoarekin batera, Euskal Herria bezalako leku

industrialetan gainbehera ekonomikoa nabarmena izango da, guztioi kaltetuz. Aipatutako arrazoiak direla eta, Trumpen muga-zergen politika, arriskutsua eta herrialde industrializatuentzat kaltegarria dela uste dut. Horrez gain arazo politiko handiak sortzen ari da Trump bere erabakiekin orokorrean eta horrela segituz gero, 3. Mundu Gerra bat piztu dezakela pentsatzen dut.

Egilea: Edurne Albisu 4C

Zer da sukaldaritza benetan?

Egunero gutxienez hiru otorodu daudela argi dago; gosaria, bazkaria eta afaria. Askorentzat sukaldatzea errutina baten parte besterik ez da: janaria prestatzea, jatea eta kitto. Baina benetan hori bakarrik al da? Nire ustez, galdera honen erantzuna argi dago: ez. Sukal-

daritza ez da janaria prestatzea eta jatea bakarrik, mundu oso bat da. Batzuentzat, artea da; beste batzuentzat, nortasunaren islada bat. Sarrera gisa esango dut, sukaldatzea ez dela janaria prestatu eta jatea bakarrik, baizik eta baita osagaien zaporea das-

tatzea eta disfrutatzea ere. Leku bakoitzean, sukaldaritza jakin bat dago, denak desberdinak. Honekin esan nahi dudana da, sukaldaritzak kultura desberdinak adierazten dituela. Adibidez, ni Sevillara joaten banaiz oporretan, burutik pasatzen zaidan lehenengo gauza, eta niri bezala beste askori, bertako janaria jatea da, kasu honetan gazpatxoa. Honek, bertako kulturaren iguruan gauza gehiago jakitea ere ahalbidetzen digu.

Hau guztiaz gain, zenbat istorio has daitezke mahai baten bueltan? Askotan ez dugu norberarentzat prestatzen janaria, lagunekin edo familiarekin partekatzeko egiten dugu. Bazkari edo afari bat antolatu, denak mahai baten inguruan eseri eta bertan janariaz disfrutatzeaz gain, istorioak, txistekak,... kon- tatzeak, izugarrizko momentu politak ekar ditzake. Horregatik, nire ustez sukaldaritza ez da errutina hutsa,

arte bat da, kultura baten isla eta besteekin harremanak es- tutzeko tresna bikaina. Lapiko baten barruan, mundu oso bat egon daiteke. Azkenean, sukaldean sartzen garen bakoitzean aukera dugu gure burua adierazteko, besteekin konektatzeko eta zerbait berezia sortzeko. Sukaldaritza bizitzeko modu bat da, ez soilik elikatzeko.

EGILEA: Libe Fuertes 4C